

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 248. alea - 2020ko otsaila

LANDER AZNAL

**“Musika egitea aldarrikapen
modu egoki bat izan daiteke”**



Seven Clovers
Irish pub


943 191 295

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



Calbeton
JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



BURU - ZURI
Taberna

- Orartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gauetan traçoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko
erretokak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

AURKIBIDEA

6

KOLABORAZIOA

Kulunka
Dantza Taldea,
"Herrikoak berriketan"
atalean

8

ALBISTEAK

Iñigo Lopez Simon
historialari bizkaitarrak
irabazi du
Tene Mujika Beka

10

ELKARRIZKETA

Lander Aznal
Brigade Loco taldeko
abeslariarekin aritu gara
solasean

14

KRONIKA

Zientzia Astea
egin berri dute,
lehenbizikoz,
Luzaro ikastetxean

15

ELKARRIZKETA

Apakin Guraso Taldea:
"Euskararen transmisioari
lotutako gure kezka
konpartitu nahi ditugu"



Paula Blanco Vazquez



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza
euskararen elkartea deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetzak) druz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maistasuna: Hilabetekaria


Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Mila esker Saharako errefuxiatuen kanpamentuetarako bilketan parte hartzeagatik; beste behin ere, portatu zarete!



Azaroan, Eskutik Eskura taldeak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako eskolak eta anbulatorioak hornitzeko materialaren bilketa egin zuen Elgoibar, Deba eta Itziarko ikastetxeetan. Bildutako materiala abenduan Gaztelekutik egin nahi zen bidaian eramatea zen helburua, bertako eskola eta anbulatorioetan uzteko asmotan. Bilketa hartan, Debako Uzuri optikak ere eskaini zuen bere laguntza, hainbat betaurreko emanez. Abenduko bidaia, ordea, ezin izan zen aurrera eramanez eta gordeta egon da orduan jasotako material guztia hilabete honen amaieran Donostiatik abiatuko den elkartasun karabanan bidaltzeko.

Urtarrilaren 18tik otsailaren 1era arte janari bilketa egin da Deba eta Itziarko janari-dendetan. Horrez gain, Debako Foruen plazako arkupeetan hainbat egunetan egon dira Eskutik Eskura taldeko gazteak bilketa horretan parte hartzen. Bildutako guztia antolatu eta Eibar-Sahara elkarteak Eibarren daukan biltegiira eramanez dute gazteek, Gaztelekuko



hezitzaileen laguntzarekin. Bertatik bideratuko da guztia elkartasun karabanan bidaltzeko. Lekaleak, arroza, azukrea, kontserbak, olioia eta konpresak biltzea zen bilketa honen helburua nagusia. Oso kopuru polita bildu da beste behin ere eta eskerrak eman nahi dizkiegu Debako eta Itziarko herritarrei eskainitakoagatik. Oso denbora tarte txikian egin dira bilketa hauek eta erantzun bikaina jaso dugu bietan ere.

Idatzi honen bitartez, herritarrei eskerrak emateaz gain, ekintza hau aurrera eramatea ahalbidetu diguten janari-dendei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Baita Uzuri optikari ere,



borondate osoz hainbat betaurreko eskaintzeagatik; "Olabe arrautzak"-i, bilketa garraiatzeko furgoneta eskuzabaltasun osoz uzteagatik; Eibar-Sahara elkarteari, zuekin elkarlanean aritzea hain erraza egiteagatik!...

Bestalde, Obra Social La Caixa ere aipatu nahi dugu, Eskutik Eskura taldearen kooperazio proiektua ekonomikoki babestu duelako.

Mila esker guztioi!

Jende txiki askok, leku txiki askotan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezakegulako!

*Debako Gaztelekuko
Eskutik Eskura taldea*

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Debako kultur eragileok kulturgune proiektu bateratu bat behar dugu

Zuetako askok jakingo duzuen bezala, Deban Kultur Mahaia sortu dugu, kultur eragile edo norbanakoen arteko koordinazio eta elkarlanerako gunea. Hilabeteak daramatzagu herriko kultur eragileen osasuna eta funtzionamendua ezagutu nahian; kulturgune proiektu bateratu bat behar dugun eta, horrela izatekotan, nolakoa izan behar den aztertzeke asmotan.

Egungo egoera hobeto ezagutze aldera, kultur eragileei zuzendutako galdetegi bat prestatu genuen. Guztien iritziak jasotzea ezinezkoa izan den arren, guztira 25 talderen* erantzunak izan ditugu aztergai. Parte-hartzea oso handia izan da eta jasotako emaitzek errealitatea ondo islatzen dutela ondorioztatu dezakegu.

Hori hala, jasotako informazio hori publiko egitea garrantzitsua dela uste dugu, herritar, eragile eta instituzioen hausnarketarako baliagarria izan daitekeelakoan. Hona hemen emaitza esanguratsuenak:

Hasteko, azpimarratzekoa da eragileen % 80k kultur mahaian parte hartzen duela eta % 20k, proiektuan interesa duen arren, parte hartzeko gaitasunik ez duela. Gainera, eragileen % 96k uste du Kultur Mahaiak kudeaturiko kulturgune bat beharrezkoa dela -instituzio eta beharrezko teknikarien laguntzaz eramango litzateke aurrera-.

Kultur eragileen osasun-egoerari dagokionez, gaur egun taldeen funtzionamendua ona da, baina taldeen ia erdiak (% 48k) euren etorkizuna kolokan dagoela adierazi du.

Bestalde, elkarlanari erreparatuz, eragileen % 16k Udalarekin harreman estua duen arren, eragile gehienek (% 84k) noizbehinkako harremana dute edo ez daukate harremanik. Ildo beretik, kultur taldeen % 64k aitortu du herriko beste eragileekin ez duela harremanik, edo harreman puntuala duela.

Emaitzekin bukatzeko, kultur eragileen gehiengoak dauka bere eguneroko jarduna aurrera eramateko gune propio edo konpartituen bat (% 84k); baina

ekintzak antolatzeke orduan, gehienak (% 60) beharturik daude azpiegitura eta materialak konpartitzera, beste eragile batzuei eskatzera edota alokatzera. Hori dela eta, kolektiboen jarduna hobetzeko identifikatzen diren behar nagusiak azpiegitura eta material falta-ekin lotuta daude.

Jasotako emaitzak ikusirik, argi geratzen da, izaera edo helburuei dagokienez ezberdinak izan arren, herriko kultur eragileek arazo edo gabezia komun batzuk badituztela.

Proiektu ezberdin baten premia

Kultur Mahaiarekiko agertu duten interesak agerian uzten du proiektu ezberdin baten premia. Eragileen artean, kulturgune baten beharra eta taldeen arteko eta administrazioarekiko elkarlana sustatzeko beharra ikusten da.

Kultur eragileen egoera eta beharrak zeintzuk diren ikusi ostean, herritarren egoera eta beharrak ezagutzea ere beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Hortaz, datozen hiru hilabeteotan zuegana hurbilduko gara, eragileekin egin bezala, galdetegi baten bitartez zuen egoera zein den ezagutzekotan.

Besterik gabe, proiektu hau aurrera eramaten laguntzen ari zareten guztiei eskerrak emanez, bide ertzean nahi gabe utzi bazaituztegu barkamenak eskatuz, eta alde zuzenetik gurekin lanean jardungo duzuenoi eskerrak emanez agurtzen gara.

Debako Kultur Mahaia

***Galdetegia erantzun duten taldeak:**
Hirulan, Errima Frustratuen Kluba, Haitz Haundi, Musika eta dantza eskola, Trikitixa taldea, Kultur Elkartea, Gazte Asanblada, Kolore Anitz, Zuhatza Euskara Elkartea, Debarock Kolektiboa, Talde feminista, Kulunka Dantza, Gure-Kai E.D.T., Pakea Deba, Mogel guraso elkartea, Musika Eskolako akordeoi taldea, Kalean Kantuz, Goaz antzerki taldea, Ipuin kontalariak, Debako Musika Banda, Zubi guraso elkartea, Debadecine, Arte Eskola Bizirik, Aitzuri Abesbatza, Senzala Capoeira taldea.



EIDER ALDALUR

Zoratuta

Noizbait norbaitek bere bizitzan zehar psikiatrikoan izan dela kontaktzen badizu, ziur naiz, kasurik onenean, harridura islatuko dela zure aurpegian. Pertsona horrek bueltan jasoko duen begiradan ez da gauza positibo gehiegirik azaleratuko eta aitortza hori entzun bezain pronto gizarteak ezarritako zorotasunaren eskalan bera non kokatu baloratzen hasiko zara.

Hain zuzen ere, halakoetan agertzen da garbier gaixotasun mentalen inguruan daukagun estigmaren magnitudea. Ohikoa izaten da norbaitek antsietatea, eskizofrenia edo antzeko gaixotasun mentalen bat baldin badu, hauxe ezkututzen saiatzea, horrek dakartzen ondorio guztiak.

Honekin hausteko, jakin gaixotasun mentalak ohikoak direla. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, gizartearen % 10ek gaixotasun mentalen bat izango du bere bizitzan zehar eta, beraz, ez da zaila izango zerorrek edo ingurukoren batek halakoren bat pasatzea.

Honekin lotuta suizidioa ere hizpide hartu dezakegu, hauxe baita gizartearen beste tabu handienetako bat, hainbeste ezkututzen saiatzen garen errealitatearen zati hori. Kasu honetan ere, datuak badu zeresana: 2018an, EAEn bi egunetik behin pertsona batek bere buruaz beste egin zuen eta datua oraindik harrigarriagoa da saiatu eta lortu ez zutenak estatistika honetan sartzen baditugu. Hala, errepide-etako istripuetan baino jende gehiago hiltzen da urtero bere buruaz beste eginda.

Beraz, gure egunerokoaren hain parte diren errealitate hauek ezkutatzek ba ote du zentzurik? Honek mesede egiten al dio inori? Ez al liguke lagunduko honi buruz inongo ingurumaririk gabe hitz egiteak? Eta nago suizidioaz ez hitz egiteagatik jende gehiago hiltzen dela hitz egiteagatik baino.



HERRIKOAK BERRIKETAN

KULUNKA DANTZA TALDEA

Kulunka Dantza Taldea 2011. urtean sortutako ballet eskola da. Esan beharra dago Deban 80. hamarkadatik ballet klaseak eman izan direla, baina eskola bera ez genuen eratu 2011. urtera arte.

Hasiera batean, klaseak udal kiroldegian ematen genituen, aurreko urteetan egin ohi zen bezala; garai haietan 70 bat ikasle zeuden. Baina, 2012. urtean, Udalak jakinarazi zigun ezingo genituela kiroldegiko instalazioak gehiago erabili; hortaz, lanean jarraitu ahal izateko, lokal propioa eskuratu genuen Zesterokua plazan. Horrek askatasun handia ekarri zigun gure lan egiteko moduan, eskolak edozein ordutan emateko aukera ahalbidetu baitzigun; ondorioz, ikasle kopurua nabarmen hazi zen.

Era berean, aipatu beharra dago badagoela beste faktore bat hazkunde horretan eragina izan duena. Azken urteotan jende heldua hasi da ikasten, aurrez balleta egiteko aukerarik izan ez duena edo aspaldian egin ez duena, eta talde berriak sortu dira eskaera horri erantzunez. Beraz, gaur egun 135 ikasle daude eskolan, 13 taldetan banatuta.

Adin tartea zabala da, 4 urtetik 65 urtera bitarteko ikasleak daude eta; hori bai, gehienak neskak. Mutil falta ikaragarria sumatzen dugu.

“Gaur egun, 135 ikasle daude eskolan, hamahiru taldetan banatuta, eta adin tartea zabala da. Hori bai, mutil falta ikaragarria sumatzen dugu”

Erabiltzen dugun irakasteko metodologiari dagokionez, dantza klasikoan oinarritzen gara, edozein dantza estilo lantzeko oinarria hori dela uste baitugu. Dena den, azken urteotan dantza garai-kideari, jazzari eta bestelako diziplina batzuei ere lekua egin diegu.

Eskola orduz gain, aipagarriak dira urtean zehar egiten ditugun jarduerak. Alde batetik, jarduera batzuetan eskolako ikasle guztiek parte hartzen dute, besteak beste, ibaiako pasealekuan egiten dugun barrako erakustaldian, apirillean ospatzen den Dantzaren Nazioarteko

Egunean, edo Aldats Pilotalekura ikusle kopuru izugarria erakartzen duen ekaineko ikasturte bukaerako jaialdian. Bestetik, eskolako zenbait taldek beste emanaldi batzuetan parte hartzen dugu, herrian zein kanpoan, gehienetan beste kultur talde batzuekin elkarlanean. Horien artean daude, adibidez, Iturri Ondoan programa edo Bergarako Orkestra eta Bandaren emanaldia –otsailaren 21ean egingo dugu dantza, 22:30ean, Bergaran–.

Azkenik, ez ditugu ahaztu behar iazko udan antolatu genituen udalekuak, oso arrakastatsuak gainera, 5 eta 13 urte bitarteko 40 ume izan genituen eta! Aurten ere egitasmo horrekin jarraitu nahiko genuke.

Amaitzeko, etorkizunari begira, ildo beretik segitzeko asmoa daukagu, urteotako esperientzian oinarrituta dantza kalitatea hobetzen eta gauza berriak lantzen. Emanaldiak bultzatu nahiko genituzke, elementu berritzaileak eta ikusgarriak sartuta, betiere gure ikasleen eta taldekideen dantzarako zaletasunaz baliatuz.



Martxoaren 8aren bueltan hainbat ekimen egingo dira Deban eta Itziarren

Emakumeen Nazioarteko Eguna da martxoaren 8a, igandea, eta horren harira hainbat ekimen antolatu dituzte Deban eta Itziarren.

Aurtengo egitarauari otsailaren 20an eman zaio hasiera, Iruleak Emakume Pilotariak-en ekimenez Agirre jauregiko Ispiluen gelan egindako "El silencio de Clara Lyndon" (Elene Lizarralde) liburuaren aurkezpenarekin.

Hurrengo hitzorduak, dena den, martxoan egingo dira. Hilaren 3an (astearte), adibidez, Beatriz Egizabal ipuin kontalariak "Baubo" izeneko helduentzako ipuin saioa eskainiko du Agirre jauregian, 19:00etan. Martxoaren 5ean zaintzaren inguruko dokumentala proiektatuko dute Kultur Elkarteak, Debako Talde Feministaren eskutik. Eta leku berean, baina biharamunean, "Me Too" antzerkia izango da ikusgai, 22:00etan -Debako Udala Kultur Ekin ekimenaren baitan-.

Martxoaren 6an bertan, baina Itziarren, ekimen ezberdinak izango dira Andutz Biltokian. Hasteko, hitzaldi

feminista egingo da 19:00etan. Ondoren, solasaldia izango da eta, 21:00etan, mokadu-afaria. Ordutebe beranduago, berriz, Karmele Larrinaga eta Iratxe Urkiagak "(Des)kontrolatuta?" antzezlan eskainiko dute.

Martxoaren 8an (igandea), Deban tailerrak egingo dira goizean eta manifestazioa eguerdian (12:30ean), Foruen plazatik abiatuta. 14:00etan herri bazkari autogestionatua izango da. Arratsalderako, bestetik, Rosario III abeslariaren emanaldia iragarri dute, baita berdintasunaren inguruko film baten proiektzioa ere Kultur Elkarteak.

Dunamis elkartearen ekimenez, hilaren 11n (asteazkena) "Reírse para vivirse" tailerra eskainiko du Ana Eguizabalek Agirre jauregian, 18:00etan. Martxoaren 12rako "Trabajos de Interior" helduentzako antzerki emanaldia iragarri dute, 19:00etan, Agirre jauregian. Eta, egitaraua biribiltzeko, martxoaren 15ean (igandea) berdintasunaren inguruko ipuin kontalarien saioa egingo da haurrentzat, arratsaldean.

Nabarmena izan zen grebaren eragina gurean



Joan den urtarrilaren 30erako, greba orokorra deitu zuen Eskubide Sozialen Gutunak Hego Euskal Herrian. Lan baldintza, pentsio eta bizitza duinen aldeko protesta egitea erabaki zuten milaka norbanakok eta ehunka eragile eta erakundek, eta grebak eragin nabarmena izan zuen gurean ere.

Bezperan, Debako udabaltzak urteko lehen osoko bilkura egin zuen. Bertan, baztertu egin zen EH Bilduk greba babesteko proposatu zuen

mozioa, EAJ-PNVk eta Debarren Ahotsak kontra bozkatu baitzuten. Greba egunean bertan, goizean piketeak ibili ziren eta herriguneko taberna eta saltoki gehienak, adibidez, itxita egon ziren egun osoan. Hamarnaka lagunek manifestazioa egin zuten goizean herriko kaleetan, baita iluntzean ere. Eguerdi partean, aldiz, Eibarren egin zen eskualde mailako manifestaziora batu ziren greba deialdiarekin bat egin zuten hainbat eta hainbat herritar.



KETUS AMASORRAIN

Tramankuluarentzako tramankulua

Duela astebete Donostiara egun pasa joan ginen, eta eskaparate batean tramankulu bitxi batek zer pentsatua sorraz zidan; neurri aldetik ez zen deigarria, 25 zentimetro luze, 15 zabal eta 20 altueran. Oker ez banabil, 7 litro eta erdiko bolumena zeukan artikulu kurioso hark; hala eta guztiz ere, urez betetzen saiatuko bagina ez genuke sekula betetzerik lortuko. Denboraz agian bete ahalko genuke.

Beheko oinarria egurrezkoa zeukan, kolore argiko egurra; horretan aditua ez naizenez, ez naiz ausartuko zer egur mota zen esatera. Bi oinarriak oso antzekoak ziren, baina behekoak, goikoak ez bezala, zeharkako 8 arraildura zituen.

Gainontzekoa metalezkoa zen. Horretan ere aditua ez naizenez, ezingo nuke asmatu zer metal zen zehazki barrote beltz haiek ekoizteko erabili zutena. Guztira 24 barrote zilindriko kontatu nizkion, azpiko oinarrian jai eta goikoan hiltzen zirenak.

Barroteetako seik ate moduko bat osatzen zuten, metalezko giltzarrapo beltz baten bitartez itxita zegoena; giltzarrapoa bortxatzen, metalezko giltza beltz bat eta zintzilik ordezkioa.

Eskaparatearen aurrean nire buruari galdezka nengibilen zer demontretarako ote zen kaiola bitxi hura, albotik 6 urteko alabak tramankuluari begiratu eta ozenki bota zuen arte: "Aitatxo, mugikorren-tzako kartzela bat".

Tristea iruditu zitzaidan mugikorren erabilera murrizteko tramankulu baten beharra izatea; mugikorrak giltzapean jarri beharra, hain preziatua eta mugatua dugun denbora tramankuluari eskaini beharrean beste edozertara dedikatu ahal izateko.

Iñigo Lopez Simon historialari bizkaitarrak irabazi du Tene Mujika Beka

Urtebeteko epea izango du lana egiteko eta liburu gisa argitaratuko da gero

Bilbon XX. mendearen erdialdean gertatu zen txabolismoa aztertuko duen proiektu batekin irabazi du Iñigo Lopez Simonek 2020ko Tene Mujika Beka.

Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez fikziozko proiektuak sartzien ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean antolatzen duten beka honek. Aurten aurkeztutako proiektuen artean Lopezena saritu du Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak, eta orain urtebeteko epea izango du historialariak lana burutzeko, gero liburu gisa argitara dadin. 6.000 euroko diru-laguntza emango diote.

1950etik aurrera hazkunde ekonomiko handia gertatu zen Bilbo aldean eta beste zenbait inguru industrialetan. Aldi berean, Espainiako hainbat zonatan, milaka gazte bere lurra uzteko eta



migratzeko prest zeuden, etorkizun hobe baten bila. Hortaz, Extremadura,

Galizia eta Gaztelako landa-lurretatik samaldaka iritsi ziren gizon-emakumeak, baina garaiko agintariek ez zituzten azpiegiturak abiada berean prestatu, eta etxebizitzien gabeziari aurre egiteko etxolak eraiki behar izan zituzten migratzaile haiek. Horrela sortu ziren txabola-auzoak Bilboren inguru osoan 50eko hamarkada amaieratik aurrera, eta fenomeno hori gertutik aztertu nahi du liburu honek, bai testuinguru sozioekonomikoan kokatuz, bai protagonisten bizipenak ahoz aho jasoz.

Iñigo Lopez Simon 1984an jaio zen Basaurin (Bizkaia). Historian dokorea da, hiri-marjinalitateari eta gazte-delinquentziari buruzko tesi batekin, eta Otxarkoagako (Bilbo) txabolismoaz ere idatzi izan du. Hauxe izango du, dena den, arlo akademikotik kanpoko lehenbiziko argitalpena.

“La hija extranjera” liburua izango dute hizpide otsaileko irakurketa tailerrean



Ostolaza Udal Liburutegiak irakurketa tailerra antolatu du otsailaren 26rako (asteazkena). Najat El Hachmi idazlearen “La hija extranjera” (Destino, 2015) liburua landuko dute parte hartzaileek, Ainhoa Aldazabal euskal filologoaren gidaritzapean. Saioa 19:00etan izango da, liburutegian bertan, eta ordu eta erdiko iraupena izango du.

Irakurketa tailerrean parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena: 943 19 25 60 telefonora deituta edo ostolaza@deba.eus helbidera mezua bidalita -16 urtetik gorakoek parte hartu dezakete egitasmoan-. Norberak eraman beharko du saio bakoitzean lantzen den liburua.

Martxoaren 25erako (asteazkena) dago aurreikusita hurrengo hitzordua liburutegian. Asier Serrano idazle eibartarrak gidatuko du tailerra eta bertan Katixa Agirrerren “Amek ez dute” (Elkar, 2018) liburua landuko dute partaideek.

Rafa Bravok Iparragirre Saria irabazi du, gaztelaniazko poesia sailean

Zumarraga eta Urretxuko Udalek antolatutako Iparragirre Saria irabazi du Rafa Bravo debarrak gaztelaniazko poesia sailean, “La sombra del aire” izenburuko lanarekin.

Epaimahaiaren erabakia abenduan jakinarazi zuten eta sari banaketa ekitaldia martxoaren hasieran izango da,

Urretxuko udaletxean, behin lan sariak jasotzen dituen argitalpena esku artean izan eta gero. Bertara joan behar du, hortaz, Bravok, 650 euroko saria jasotzera. Ez da idazle debarra saritzen duten lehen aldia, aurretik ere zenbait sari irabazia baita.

Iparragirre Sarien azken deialdian,

bertsopaper lehiaketako saria Iñigo Legorburu hernaniarrak lortu du. Euskarazko narratiba atalean, Ane Odriozola legazpiarra nagusitu da; eta erdarazko narratiba sailean, berriz, Jose Antonio Palomares madrildarra. Euskarazko poesia saileko saria Ainhoa Andueza iruindarrak irabazi du.

“Iruña-Veleia auziaz” arituko da Juan Martin Elexpuru Itziarren

Otsailaren hasieran hasi da *Iruña-Veleia* auziko epaiketa, Arabako Auzitegiko 1. Zigor aretoan eta, horren harira, gaian aditua den Juan Martin Elexpuruk hitzaldia eskainiko du hilaren 27an (osteguna), 19:00etan, Itziarko Burugorri gainean.

2005 eta 2006an, Eliseo Gil eta Idoia Filloy arkeologoen zuzentzen zuten Lurmen taldeak hainbat grafito aurkitu zituen Iruña-Veleiako (Araba) aztarnategian. Historikotzat jo zuten aurkikuntza: grafitoak zeramika piezen gainean zeuden idatziak, eta horietatik ondorioztatu zitekeen III. mendean euskara

inguruan zabaldua zegoela. Gerora etorri ziren, ordea, zalantzak eta iruzur leporaketak.

Arkeologoen aurkitutako aztarnak faltsuak zirela esan zuen Arabako Foru Aldundiak, eta auzipetu egin zituen indusketa-lanetan aritutako Lurmen taldeko arduradunak –espetxe zigorrak eta isun ekonomikoak eskatzen dizkiete-. Ordutik aldeko eta aurkako iritziak eta jarrerak ugariak izaten ari dira.

Juan Martin Elexpuru filologo eta historiagileak gertutik ezagutzen du puri-purian dagoen auzia. Bere iritzia ezagutzeko aukera izango da Itziarren.

V. Lasturko Mendi Martxa, martxoaren 15ean

Lasturko Mendi Martxaren bosgarren edizioa martxoaren 15ean (igan-dea) izango da. Izarraitz Bizirik elkar-teak antolatutako hitzorduak Geoparkeko karstari bira egiteko aukera eskainiko du. Partaideek bi ibilbide izango dituzte aukeran: 28 kilometrokoa bata (+1800 metroko desnibelarekin), eta 20 kilometrokoa

bestea (desnibela:+1200 m.).

Lasturko plazatik abiatuko da mendi martxa, 7:30ean. Izena eman nahi dutenek www.kirolprobak.com atarira jo beharko dute. Izen-ematea otsailaren 29a baino lehen eginez gero, 10 euro ordaindu beharko dira. Otsailaren 29tik martxoaren 12ra, ordea, hamabi.

Urtero bezala, makila eskuan Santa eskean



Santa Ageda bezpera ospatu dute aurten ere otsailaren 4an herriko hainbat taldek. Asteartea triste esnatu bazen ere, eguraldiari aurre eginez, makilak eskuan hartu eta koplari ibili ziren herriko kaleetan.

Ikastetxeko haurrak bazkalostean irten ziren abestera; musika eskolako haurrak zein Aitzuri Abesbatzako

kideak, berriz, iluntzean. Otsaileko egun goibel batean ohiko doinuez zer ospatua badutela gogorarazi ziguten.

Itziarren, otsailaren 4an ez ezik, hilaren 8an (larunbata) ere aritu ziren koplak kantatzen. Haurren txanda izan zen lehen egunean, eta gazte zein helduena bigarrean –auzo, etxez etxe, ibili ziren santa eskean–.



IBON URKIA

...eta amonak ezetz!!

Deigarria egin zaidan ustekabe batekin abiatu dut urte berria. Kontua da Hertzainak rock taldearen “Aitormena” kantuen bertsio xeble bat entzun dudala orain dela gutxi. Hasieratik bertatik ikutu ezberdin bat badu bertsioak. Trikitiak darabilen erregistroa, kantaria-ren ahoskera, gitarren eragiteko tankera... ez dakit oso ondo nola azaldu, baina niri behintzat jakin-mina piztu dit eta hariari tiraka hasi naiz besterik jakitekotan.

Ingelesek web deitzen dioten armiarma-sare erraldoira jo dut ea ezer topatzen dudana eta berehala jaso dut aurreneko ezustekoa; Boiseko (Idaho) talde bat da bertsioaren egile. Ño, ez zen aise asmatzeko modukoa, gero!

Taldearen izena ere ez da nolana: Amuma Says No (amonak ezetz dio). Ez didazue ukatuko amona bizkaitarraren eta ingeles amerikarraren nahasketak sugerentetik behintzat ez duenik.

Gehientsuenoi ezagun zaizkigun euskal kantuen bertsioak egiten dituzte, zein baino zein orijinalagoak. Batzuk aipatzearren, “Zazpi jauzi”, Tapia eta Leturiaren “Galdurikan nago”, “Guk euskaraz”, Pirritx eta Porrotxen “Maite zaitut” eta beste hainbat.

Amaitu berri den 2019an argitaratu dute hirugarren lana, “Gatz and Berakatz”. Estatu Batuetako euskal diasporarentzat ez ezik, gero eta ezagunagoak ei dira inguruetan ere Dan Ansotegiren trikitixa eta Jill Aldape abeslariaren irrintziak, besteak beste.

Oraintsu taldearen izenaren gainean galdetu diete hauei bie elkarriketa batean eta Jill Aldapek erantzun zion kazetariari. Bere etxean amonak ezetz esaten zuenean amaitzen ziren luze jotzen zuten eztabaidak. Kitto!!



LANDER AZNAL
Brigade Loco taldeko abeslaria

“Pozik egoteko arrazoiak dauzkagu; miresten ditugun taldeekin jotzeko aukera izan dugu eta hori ez da diruarekin ordaintzen”

Aurretik bestelako proiektu batzuetan ibili bada ere, askorentzat gaur egun Brigade Loco taldeko abeslaria izateagatik da ezaguna Lander Aznal. Talde gaztea da Brigade Loco, 2017an ekin baitzion bere ibilbideari, baina bizpahiru urtean inork gutxik esperotako arrakasta izan du punk-oi! eta punk rock eszenan. Orain arte egin duten bidez, lortutako emaitzez eta esku artean dituzten proiektuez galdezka joan gatzazkio Aznali. Bide batez, solasaldian 29 urteko musikari debarra pixka bat gehiago ezagutzeko aukera ere izan du *Berriketan*-ek.

Noiz eta nola sortu zen Brigade Loco?

Taldea 2017an sortu zen. Oier baxu-jotzaileak proiektu berri batekin hasteko gogoia zeukan eta puzzlea osatuko zuten piezak biltzen joan zen. Banan-banan kontentzitu gintuen eta entsegu batzuen ostean martxan jarri ginen. Boskotea izan gara hasieratik; Oier (baxua), Alex (gitarra) eta Mikel (gitarra) bergararrak dira, Manex (bateria) hernaniarra eta ni (abeslaria) debarra.

Wikipedian irakurri dugu gehienbat punk-rocka abesten duzuela, baina baita punk-oi! estiloa ere. Zuzena al da? Nola definitzen duzue zuen musika?

Wikipedian? Ez nekien bertan geundetik ere! (*kar-kar*). Ez dakit erraza den estiloak definitzea, baina gure musika bi estilo horien artean kokatuko nuke, bai. Gitarra doinu melodikoak, koro ugari eta ahotsaren gogortasun puntu bat.

Zalantzarik gabe, realzale amorratuak zarete. Zein pisu du Realak zuen taldean? Reale Arenan zuen *Bultzada* abestia entzuten da gaur egun...

Pisua dauka, bai, batez ere hasieran izan zuen bere garrantzia. Entseatzen hasi

ginenean, sarritan elkartzen ginen bostok Anoetako harmailetan. Gure arteko lotura bat dela esango nuke; guztiok gara realzaleak. Anoetan izan ginen azken partidan, atsedendaldian jarri omen zuten abestia. Sortu genuenean ez genuen espero hain urrun iritsiko ginenik, baina pozik gaude.

“Musika egitea aldarrikapen modu egoki bat izan daitekeela uste dugu; hori uste dugu eta hori egiten saiatzen gara”

Bestelako gaiak ere lantzen dituzue abestietan, arazo sozialak eta aldarrikapen politikoak, esaterako...

Bai, noski. Ez genuen gure taldea futbol kontuetara bakarrik mugatu nahi. Uste dugu musika egitea aldarrikapen modu egoki bat izan daitekeela; hori uste dugu eta hori egiten saiatzen gara. Kontuan hartuta Euskal Herrian bizi garela, herri honek daukan historia borrokalariarekin, eta gaur egungo garaiotan bizi ditugun gabezia eta zapalkuntzek konpondu gabe

jarraitzen dutela ikusita, musika aldarrikapen eta kontzientzia-arma gisa erabiltzea erantzukizun modura hartzen dugu. Besteak beste, herri honen nortasunaz, justizia ezaz edota aske izateko eskubideaz hitz egiten dugu gure letretan. Beti dago tokitxo bat lagunei edo arazo ezberdinei buruz abesteko ere.

2018an grabatu zenuten lehen diskoa, “Ekintzek dute hitza”. Nola joan zen diskoa aurkezteko bira? Pozik?

Egia esan, uste baino kontzertu gehiago eman ditugu eta espero baino toki ezberdin gehiagotara iritsi da gure musika. Oso pozik egoteko arrazoiak dauzkagu. Euskal Herriko hamaika txokotan jotzeko aukera izan dugu, baita Estatu espainiarreko hainbat hiritan ere. Jende berri eta jator asko ezagutu dugu bidean, eta errealitate berri eta ezberdin asko ere bai. Askok gozatu dugu egindakoaz eta pozik gaude. Gainera, gure gaztetako talde kuttunenekin jotzeko aukera izan dugu, miresten genituen horiekin. Hori ez da diruarekin ordaintzen!

Kontzeptu subjektiboa izan daiteke arrakastarena, baina argigarriak dira zenbait datu. Hona pare bat: *Aurrera doa*



abestiaren bideklipak 510.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu Youtuben; Bultzada-renak, 184.000 baino gehiago...

Subjektiboa da, bai, baina ziurtatu dezakedana da guk lan handia egin dugula heldu diren emaitzak jasotzeko, ez zai-gula ezer zerutik erori. Badirudi, betiere zenbakietara begiratuz gero, jendeari gustatu zaiola egin duguna, emaitza horiek ikusgarriak dira. Zerbait ondo egin dugun seinale izatea espero dut (*kar-kar*).

Zenbaterainoko garrantzia dute internetek eta sare sozialek zuen lanaren zabal-kundeetan?

Gaur egungo gizartean, sare sozialek gero eta pisu handiagoa dute gure egunerokotasunean, onerako eta txarrerako. Bizi ereduak aldatzen ari da, baita sozializatzeko ereduak ere. Gure kasuan, uste dut sare sozialek garrantzi handia izan dutela. Uste dut asmatu egin dugula sare sozialen bitartez gure mezua helarazten eta horrek gauzak "erraztu" dizkigu. Baina, lehen esan dudan moduan, honek ere bere lana dakar.

Zertan zabilzate lanean gaur egun? Beste proiekturik bai esku artean?

Bigarren diskoaren grabazioarekin gabilzta oraintxe bertan. Hilabete honetan diskoa grabatzen egongo gara Iruñean eta martxoan diskoaren arlo teknikoak landuko ditugu. Espero dugu apirilera guztia prest egotea eta bigarren lan hau kalean bueltaka ibiltzea.

"Musikak oso bizipen onak eman dizkit; kendu, berriz, batez ere denbora"

Zein da Lander Aznal? Nola aurkeztuko zenuke zure burua hitz gutxitan?

Uffff... ez zait gustatzen nire burua saltzea, ez naiz oso zalea, baina tira... Landerrek 29 urte ditu, irakasle dabil lanean eta azken urteak Deba eta Gasteiz artean eman ditu bueltaka. Musika eta Reala dira bere bi afizio nagusiak, baita kalean lagunekin elkartzea ere, garagardo bat eskuan izanda. Gertukoa, zintzoa eta esku-zabala dela esango nuke. Batzuetan burugorra, eta serio itxurakoa, baina jatorra.

Irakaslea eta musikaria zara. Zenbaterainoko garrantzia dute batak zein besteak zure bizitzan?

Biek ematen didate asko, eta batzuetan kendu ere bai (*kar-kar*). Egiten dudana gustura egiten dut, uste dut hori oso garrantzitsua dela edozeinentzat. Pertonekin jardutea asko gustatzen zait, izan ume nahiz heldu. Bakoitzari berearekin, noski. Ez nituzke bata bestearengatik aldatuko, inolaz ere.

Noiztik musikarekiko zaletasuna?

Aspaldi hasi ginen kuadrillako bost lagun Gaztetxeko entsegu gela heze hartan zarata ateratzen. Nerabazaroko gogoak bul-tzatuta, taldea atera genuen, Strikers, eta garai hartan punk-oi mugimenduak Gipuzkoan zeukan indarrak modu batean liluratu egin ninduela uste dut. Kontzertu ugari jo, antolatu eta ikustera joaten nintzen. Asko gozatu eta ikasi nuen garai hartan.

Zeintzuk dira zure erreferente musikalko garrantzitsuenak?

Gehienbat, inguruko taldeak izan dira erreferente nagusienak, aurretik aipatu dudan mugimendu hartan partaide zuzenak zirenak. Izen batzuk esatearren, Hell Beer Boys, Jonny Gerriwelt, Deskontrol edota Never Surrender. Kanpoko taldeak ere asko entzun izan ditut, batez ere Ingalaterrako Cock Sparrer eta Cockney Rejects bezalakoak, eta agian ezezaguna-goa den italiar mugimenduak bere garaian ere eman zidan atentzioa, Banda Bassotti edo Los Fastidios bezalako taldeek.

Brigade Locon ez ezik, beste proiektu batzuetan ere ibilia zara, ezta?

Bai, Strikers taldean ibilitakoa naiz. Orduan punk-oi mugimendua puri-

purian zegoen Gipuzkoan, eta Deban ez ginen gutxiago izan. Gurekin batera Secuestro Express edo Txabola Crew bezalako taldeak sortu ziren eta kuadrillatxo polita osatzen genuen. Gainera, Debako Gaztetxean kontzertu ugari antolatzen genituen inguruko herrietako taldeekin. Egoera polita zegoen herrian, musikari dagokionez.

Zer nahiago, areto txikiak ala handiak?

Nik beti esan izan diet taldekideei nahiago ditudala areto txikiak. Jendearen gertutasuna, berotasuna gertu sentitzea gustatzen zait. Politak da eszenatoki handi batean jende askoren aurrean jotzea, baina nik nahiago ditut areto txikiak.

Zelan daramazu puntako talde baten abeslari izatea? Ezaguna zara gaur egun...

Beno beno, ez da hainbesterako (*kar-kar*). Eramateko askorik ez dago. Noizean behin igartzen da begirada gehiago dau-dela zure gainean, baina ezer handirik ez. Kontzertuen osteko momentuetan hurbiltzen zaizu agian jende gehien; orduan nabaritzen duzu gehiago.

Zer ematen dizu musikak? Eta zer kendu?

Momentu on asko eman dizkit, lagun berriak, berriz biziko ez ditudan momentuak, ametsak betetzeko aukera, leku berriak ezagutzeko aukera... Batez ere bizipenak, oso bizipen onak. Eta kendu? Batez ere denbora. Lagunekin, bikotearekin edo familiarekin egoteko denbora falta da gehien nabarmenduko nukeena.

Zurea da azken hitza, Lander.

Bukatu aurretik, Debako gazte eta ez hain gazteak musika egitera animatu nahiko nituzte; Debarock kolektiboan parte hartu, berau indartu, herriari eskaintza bat eskaini... asko ikasten da besteez, eta besteek norberaz. Bere garaian Debarocken baitan egin genuen lana ere goraiatu nahiko nuke, herritik eta herriarentzat. Eta bertan lanean egon gineno agur bat bidali nahiko nieke. Neskei ere deialdi berezia: musikak neska gehiago behar ditu eszenatoki gainean!

Eta zuei eskerrak eman, aukera hau emateagatik. Gora musika herrikoia!

Anartz Aldalur: "Gu Txinan baino urduriago egon dira etxeokak hemen; guretzat ez da hainbestearainokoa izan"

Lan kontuak tarteko, Txinan zegoen Anartz Aldalur debarra koronabirusaren gaiak eztanda egin zuenean. Uste baino apur bat lehenago itzuli behar izan da Euskal Herrira, baina onik etorri da eta dagoeneko eguneroko ohiko bizimoduan murgilduta dago. Bidaiaz, koronabirusaz, horrek sortutako alarma sozialaz... aritu gara berarekin *Berriketan*.

Zer moduz zaude?

Ondo! Ez dut ezer arrarorik nabaritzen, ez dut inolako sintomaririk, oraingo behintzat, eta trankil nago, bizitza normala daramat.

Noiz iritsi zinen Txinara?

Urtarrilaren 7an irten ginen hemen-dik, eta bi egunera iritsi Jinanera. Bertako aireportuan taxia hartu eta hotelera abiatu ginen. Lan bidaia izan da, makina bat muntatzera joan gara Soralezko lankide bat eta biok. Jinanen egon gara, Wuhanetik 900 bat kilometrora.

Iritsi zinetenerako, bazeneukaten koronabirusaren berri? Ala ezustean harrapatu zintuzten kontuak?

Ez genekien ezer. Informazioa egongo zen ordurako, baina nik uste dut atzeratu egin dutela informazio hori ematea, edo ezkutatu. Gu lehenengo hamabost eguntan oso gustura ibili gara bertan, lan egin, turismo apur bat, paseatu, ondo jan... dena normaltasunez. Birusaren kontua egun batetik bestera jakin genuen. Hasierako eguntan, adibidez, ikusten genuen jendeak maskara zeramala, baina bagenekien hori ez zela harritzekoa han, kutsadura kontuengatik ohitura daukatelako. Gu lasai geunden, gero etorri zen dena.

Egun batetik bestera, beraz...

Bai. Uste dut enpresako lasartear batek deitu zigula birusarena komentatzeko; hark bertan egiten du lan, Txinan bizi da, eta berak esan zigun maskara jantzi behar genuela eta abar. Eta hotelean bertan ere mezu bat utzi ziguten logelan. Bertan azaltzen ziguten Txinako Gobernuak logelatik ez irte eta edo gutxi irte eta aholkatzen zuela, janaria logelara



eramaten hasiko zirela eta abar. Dena den, gu lanera joan ginen. Txinan urte berria ospatzen zebiltzanez, denak zeuden oporretan, eta gu bakarrik aritzen ginen lanean tailerlean, gustura.

Nolakoa zen egoera kalean?

Abisua jaso genuen egun berean, kalea irteetan, ikusi genuen aldaketa; jende guzti-guztia zebilen jadanik maskarekin. Eta jendeak gurekiko zuen jarreraren ere nolabaiteko aldaketa bat ikusi genuen ordutik aurrera; herri txiki hura ez da batere turistikoa, ez daude ohituta gu bezalako "giriak" bertan ikusten eta, hasieran, dendetara sartzean adibidez, jendea begira geratzen zitzaigun, edo *Hello!* esatera hurbiltzen ziren batzuk. Egun hartatik aurrera, ordea, ez gintuzten agurtu, arraro begiratzen gintuzten, kutsatuak gu izango bagina bezala edo...

Zein neurri hartu behar izan zenituzten bertan zeundeten bitartean?

Maskara jantzi, tenperatura kontrolatu, eskuak askotan garbitu, jende pilaketak saihestu, norbaitek doministiku egin ez gero, ez gerturatu...

Informatuta egon zarete une oro?

Bai, informatuta egon gara, hoteleko pare bat ohar, lankide lasartearrek zekiena edota telebista eta irratiz entzuten genuenarekin... Azken finean, gaur egungo apli-



kazio guztiakin informazioa eskura daukagu denok. Dena den, uste dut Txinako Gobernuak pixka bat edo asko "tapatu" nahi izan duela guztia, datu guztiak ez direla errealak izango, alegia. 400 pertsona hil direla esaten badute, nire sententzia da agian 4.000 izan direla hildakoak, baina ez dakit... Hau dena ezin daiteke egun batetik bestera gertatu.

Koronabirusaren agerraldiak izua eta kaosa eragin ditu Txinan, baita handik kanpo ere dagoeneko. Zelan bizi izan duzue zuek hau dena bertan?

Ez da hainbestearainokoa izan guretzat. Egia da birusaren berri izan ondoren ezinezkoa zela, adibidez, taxi bat hartzea, kotxerik ere ez zen ikusten (eta lanera ere ezin joan, ondorioz). Hotelean ere jende gutxi zegoen eta herrian itxita zegoen ia dena. Ahal genuen tokian zerbait erosi eta hoteleko logelara joaten ginen gu jatera eta abar. Edonon sartu orduko tenperatura hartzen ziguten eta, egia esan, gure kezka nagusia horrekin lotuta zegoen: han negua da, zero azpitik 8-9 gradutan egon gara lanean, eta beldur ginen gripe arrunt bat hartu eta sukar pixka bat izanez gero ez genekielako zer gertatuko zitzaigun (*kar-kar!*). Koronabirusarekin kutsatzeko beldurrik ez geneukan, Wuhanetik urruti geunden gainera, baina arrunta izan zitekeen beste zerbait hartzeko beldurra bagenuen, adibidez.

Eta zuen etxeokak kezkatuta, ezta?

Bai, nik uste dut beraiek bizi izan dutela dena urduritasun handiagoarekin. Egunero deitzen ziguten zer moduz geunden galdezka... Guk lasai egoteko esaten genien, gu geunden lekuan behintzat ez zelako hainbestera.

Itzulera bidia nolako izan da?

Otsailaren 6an etorri behar ginen arren, azkenean urtarrilaren 30ean itzuli ginen. Jinanetik tren hartu Txindaora, bertan lo egin eta hurrengo egunean Frankfurtera hegazkinez. Tailerrekoak ibili ziren gu Txinatik nola atera begiratzeko, eta bi hegaldi eman zizkiguten aukeran; haietako lehenengoa hartzea erabaki genuen eta goizeko 5etan deitu ziguten tailerretik, esanez ez beldurtzeko, baina hura izango zela har genezakeen azken hegazkina, beste guztiak bertan behera laga zituztelako. Beraz, edo hura hartzen genuen edo bertan gelditzen ginen, beste aukerarik ez geneukan. Goizean goiz han ginen gu zain, noski, eta arazorik gabe hartu genuen hegaldia. Bidaia komertzial arrunt bat izan zen. Pixka bat urduri gentozen denok, baina tira, ondo iritsi ginen gero Bilbora.

Eta behin hona iritsita... bizitza normala? Medikutara joan behar izan duzue, adibidez? Tratamenduan egon zarete?

Hemen lehen gaua pasa ondoren, tailerretik deitu zidaten ambulatiora joan ote nintzen galdetzen, eta nik ezetz erantzun. Badaezpada Mendaroko ospitalera deitu nuen, informazio pixka bat izateko, zerbait egin behar ote nuen galdetzeko eta abar... Analisi edo probaren bat egin behar ote nuen jakin nahi nuen, adibidez. Baina galdetu zidaten ea sintomarik nuen, eta ez dut. Beraz, ez didate ezer begiratu eta pentsatu nuen askoz gehiago ezin dudala egin. Ez dut ezer arrarorik nabaritzen eta oraingoz behintzat trankil nago.

Zer sentsazio gelditu zaizu bizitakoaz? Beldurtuta oraindik ala etorkizun batean anekdota hutsean geldituko da hau dena zuretzat?

Anekdota bezala gogoratuko dudala uste dut. Gai honi buruzko informazio asko ere ez daukagu, baina egia da Euskal Herrian eta Estatu mailan gripe arrunt batekin ere pila bat lagun hiltzen direla urtean, eta ez dakit ba... Ez dut uste dramatizatu egin behar denik.

Deba eta Mutriku arteko errepideko obrak otsailaren amaieran bukatu nahi dituzte

Deba eta Mutriku arteko GI-638 errepideko obratan oraindik ere lan guztiak amaitu ez diren arren, otsailaren amaierarako dena bukatzea aurreikusten dute. Urtarrilaren 22an egin zen Alkoleako tunelaren irekiera ekitaldia eta bertan jakinarazi zuten obraren amaiera data Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak.

2019ko urtarrilaren amaieran abiatu zituzten lanak GI-638an eta aurreikusitako egutegia betetzen ari dira. Tunela zabaldu zutenetik, irekita dago ibilgailuen behin betiko ibilbidea, nahiz eta azken obra batzuk egiteko errail bat erabili behar izan duten. Obren azken fase honetan, bidegorria, garbigunearen aurreko plataformari eusteko horma, Ondarbeltzeko hondartzako hormaren

estaldura, Alkoleako muturra... egin behar dituzte, otsailaren amaierara bitartean.

Urtarrilaren amaieran zenbait hedabidek Alkolea gainean arrakala batzuk agertu zirela argitaratu bazuten ere, arrakala horiek ez direla obraren ondorio izan argitu dute Aldundiko iturriek. Hala ondoriozta daiteke geologo batek, eta ubide eta bide ingeniari batek ingurua ikuskatu ostean sortu duten txosten geologikotik. Are gehiago, arrakalek ez dutela errepidea arriskuan jartzen baieztatu dute. Aldundiaren esanetan, dena den, lurra nahiko ezegonkorra da eta jarraipena egingo dute mugimendurik dagoen ikuskatzeko; obra egin aurretik gertatzen zen bezala, lur jausi txikiren bat edo beste gerta liteke eta.



Itziarko Auzo Udala Landaola Sarietarako hautagaien artean izan da

Landaola Federazioak otsailaren 7an banatu zituen III. Landaola Sariak Aretxabaletan, Otalora jauregian, Gipuzkoako landa garapenerako proiektuei errekonozimendua egiteko asmoz.

Erakunde publikoek sustatutako proiektuen saria Azpeitiko Udalak jaso du Aratzerrekako ura garbitzeko sistema naturalaren proiektuarengatik. Erakunde pribatuen arloan, berriz, Alekak jaso du saria, Euskal Herriko Hazi Ekologikoak proiektuarengatik, Bestetik, Emakumeak Landa Eremuan saria Ebel elkarteak jaso du eta, azkenik, Jaime Zubia Zinkunegik irabazi

du Urteetako Ibilbideari Saria.

Saririk lortu ez duen arren, erakunde publikoen esparruan hautagaien artean izan da Itziarko Auzo Udala, "Elurzuloa eta auzolana" proiektuarengatik.



Zientzia Astea egin dute, lehenbizikoz, Luzaro ikastetxean

Otsailaren 10etik 14ra bitartean, zientzia eta teknologiaren mundura gerturatzeko aukera izan dute Luzaro HLH Ikastetxeko ikasleek. Horixe izan da, funtsean, “ilusioz beteta” lehen aldiz antolatu duten Zientzia Astearen erronka nagusia.

“Ekimen honen bidez, gure ikasleen kompetentzia zientifikoa garatzea eta, esperimendazio eta manipulazioaren bitartez, haien jakin-mina piztea dugu helburu, baita genero ikuspegia lantzea ere”, laburbildu dute ikastetxeko arduradunek. “Horretarako –gaineratu dute–, etxeko zientzialariez baliatu gara eta herriko nahiz inguruetatik lantegietan erabiltzen dituzten teknologia eta egiten dituzten produktuak ikastetxera hurbildu nahi izan ditugu”.

Bost egunez, hain zuzen ere, adin eta publiko guztiei zuzendutako askotariko jarduerak izan dira aukeran, ikastetxean zein herrian.

Ikastetxean bertan, adibidez, Educaixaren **Planetariuma** izan dute aste osoan. Baliabide didaktikoa da, hainbat proiektzio dituen puzgarri erraldoia; bertan, espazioari buruzko bideoak ikusteko aukera izan dute lau urteko gelatik hasi eta 6. mailara bitarteko ikasleek.

Ostolaza Udal Liburutegiaren laguntzarekin, bestetik, Luzaroko liburutegian **zientzia-liburuen erakusketa** bat izan da ikusgai. Bertan, gai zientifiko/teknologikoak lantzen dituzten argitalpenez gozatu ahal izan dute gazteek.

Izaera ezberdineko **tailerrak** ere izan dira Zientzia Astearen baitan. Batetik, 6. mailako ikasleak 4 eta 5 urteko haurren irakasle bihurtu dira tarte batez; ikerketa munduan murgiltzeko aukera izan dute, horretarako esperimendu desberdinak baliatuz. Bestetik, guraso zientzialariak izan dira protagonistak. Ikastetxeko arduradunek azaldu dutenez, “Zientzia Asterako tailerrak antolatzeko asmoz, guraso zientzialarien artean deialdia zabaldu genuen eta arrakasta handia izan zuen. Oso gai eta arlo anitzetan dabilzan boluntario ugari parte hartu dute; beraz, arratsaldeetan, maila bakoitzean bizpahiru tailer antolatzeko aukera izan dugu, euskaraz zein gaztelaniaz”.

Gai eta materia ezberdinak landu dituzte gurasoen laguntzarekin, hala nola robotika eta programazioa Teknikerren,



plastikoen garapena, lan arriskuen azterketa, kimika tailerra, akuakultura, teknologia eta softwaregintza (Happyselfie-a), kautxo (zuhaitzetatik eguneroko tresnetara)...

Ikastetxean pozik daude tailerrek izan duten harrerarekin: “Ikasleengan eta gurasoengan ilusio eta emozio ugari piztu dituen jarduera izan da. Ikasleak pozik daude beraien gurasoak ikastetxean bertatik bertara ikusteko aukera izan dutelako, eta gurasoak ere bai, noski, seme-alaben irakaskuntzan parte hartu eta euren bokazio zientifikoa transmititzeko aukera izan dutelako”.

**“Ea orain arte
arrotz sentitu ditugun
zientzia eta teknologia
normaltasunez
txertatzen ditugun gure
egunerokotasunean”**

Hitzordu bikoitza otsailaren 11n

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna ere ez da oharkabean pasa aurten herrian. Otsailaren 11n, hain zuzen ere, bi hitzordu egin dira Zientzia Astearen baitan.

Tailerretan parte hartu duten emakumeengan ez ezik, bestelako emakume zientzialari batzuen bizitzan eta lanean ere jarri dute arreta. Horretarako, ekimen ezberdinak egin dituzte eta **ipuin kontalari** aritzen diren guraso batzuk ikastetxean izan dira 1. eta 2. mailako ikasleei emakume zientzialariei buruzko kontakizunak eskaintzen.

Debako Udalaren parte-hartzearekin, bestetik, **klima aldaketari buruzko hitzaldia** izan zen, arratsaldean, Kultur Elkartearen. “Klima aldaketa, uraren ikuspegitik” izan zuten hizpide Iñaki Antiguedad eta Ane Zabaletak.

Zientzia Astearen balorazio positiboa egin dute ikastetxeko kideek. “Espero dezagun ilusioz beteriko proiektu hau zientziara hurbiltzeko lehen urratsa baino ez izatea. Ea denon artean orain arte arrotz sentitu ditugun zientzia eta teknologia normaltasun osoz txertatzen ditugun gure egunerokotasunean”.

APAKIN GURASO TALDEA

“Familia gehiagorekin konpartitu nahi ditugu euskararen transmisioari lotutako gure kezka eta nahiak”

Azken asteotan kartel bereziz beteta ikusi ditugu herriko pareta eta bazterrak, kolore argidun kartelak; lehen asteen datu hutsak, hurrengo egunetan datuekin testu pixka bat, hurrengoan azalpen gehiago... Astez aste informazio gehiago zuten kartelak ikusteko aukera izan dugu, eta azkenerako tira! Euskara eta transmisioari lotzen zaizkion kartelak direla ematen du. Baina horien nondik norakoaz kuriositatea piztu zaigunez, kartelen egileak topatu ditugu, “Apakin Guraso Taldea”, eta horiei buruz galdetu.

Ehuneko 80, 20, 29, 71. Zuek zerbait badakizue honetaz, ezta?


Ba bai! Herriko plazan jasotako euskararen erabileraren inguruko datuak dira. Herriko haurren artean geroz eta euskara gutxiago erabiltzen dela diote azken ikerketek, nahiz eta, sarritan, alderantzizkoa pentsatzen dugun eta, adin tarte horretan, euskara aseguratuta dagoela iruditu izan zaigun beti. Hala ere, fokua lekuz aldatu nahi izan dugu. Haurrek lehen baino euskara gutxiago egiten dute, ados. Eta helduok? Guk zer egiten dugu? Datutxo hauek berriz ere gure susmoak egiaztatu dituzte: heldu eta haurren arteko elkarrizketen % 20 gazteleraz izan dira eta % 80 euskaraz. Helduen arteko elkarrizketak neurtzean datuak guztiz aldatzen dira: helduen arteko elkarrizketen % 71 gazteleraz izan dira eta % 29 euskaraz.

Beraz, helduek haurrekin gehiena euskaraz baina helduon artean ez? Zer dago horren atzean?

Horren atzean zer dagoen baino horrek aurrera begira zer suposatu dezakeen pentsatzera eramane beharko gintuzke. Haurren erreferente nagusiak gara, txikitik behinik behin; umeei imitazioz jokatzeko dute eta hizkuntzaren gaiarekin komeritu ez diren mezuak ematen dizkiegu: zuekin euskaraz egiten dugu baina helduon artean gazteleraz. Nagusien arteko hizkuntza gazteleraz dela esaten ari gara praktikan eta, gure ustez, horren inguruan hausnartzea eta eredu egokiak emateko bidea urratzea garrantzitsua izan daiteke.

Eta bide hori urratzeko talde berria sortu da herrian. Apakin Guraso Taldea. Hala da?

Udalak ia zoko urte bukaeran haur eta gazteen euskararen erabilera urratsak emateko familietatik egin zitekeen hausnartze deialdia luzatu zuen. Bileran, herriko haur eta gazteen euskararen erabileraren inguruko kezka agerian gelditu zen, baina ez ginen horretan bakarrik gelditu. Gurasook bide horretan zer esana eta zer egina badugula uste dugu: gutako bakoitza eragile izan daiteke gure seme-alaben hizkuntzaren erabilera, eta gainera, modu antolatuan egiten badugu eraginkorragoak izango gara. Ordutik hilero bildu gara, egin nahi dugun bidea irudikatzen hasi gara eta lehen ekimen hau jarri dugu martxan.



Lehen ekimena zertan den azalduko diguzue, mesedez?

Lehen aipatutako datuak kaleratzeko neurketa txikitxo bat egin genuen herriko plazan eta datuak kaleratu ditugu. Esan beharra dago datu hauek ez direla guztiz zientifikoak, baina jendearengan hausnarketatxo bat eragin nahi genuen. Datuak deigarriak dira eta gure ustez zer pentsatua eman beharko lukete. Hala ere, lehen ekimen honekin ez dugu puntu honetan gelditu nahi. Familia gehiagorekin konpartitu nahi ditugu euskararen transmisioari lotutako gure kezka eta nahiak. Eta noski, familiek esateko dutena ere entzun nahi dugu. Hori da batez ere helburua, hausnarketak konpartitu, kezkek mahaigaineratu eta egoera desberdinetan zer egin dezakegun horretan pistak jaso. Horretarako kafe tertulia baterako deialdia zabaldu dugu. Martxoaren 5ean izango da. Giro lasai eta goxoan parte hartzea deitu nahi dugu gaiaren inguruan hitz egin nahi duen edonor. Batu gaitezen ba sutondora!

Batu sutondora lelopean egingo da, hain zuzen, kafe tertulia.

Bai. “Apakin Guraso Taldea” gara. Apakinak itsasoak ekartzen dituen egur zatiak dira. Egur horiek sua egiteko erabiltzen ziren garai batean eta hurrengo kafe tertuliarako kontuan hartu nahi izan dugu. Gure baliabideak aprobetxatu eta suaren bueltan goxo eta lasai hitz egiteko parada eskaini nahi dugu. Su handirik ezingo dugu egin, baina garai batean bezala gure arteko elkarrizketari garrantzia eman eta merezi dugun tarte eskaini nahi diogu geure buruari eta jendeari. Gure artean hitz egiteaz gain, gai honen inguruan lanean diharduen *ebete* elkartearen laguntza ere izango dugu: egoera desberdinak nola kudeatu, beste herrietako esperientziak ezagutu...

Beste zerbait gehitzerik nahi?

Familiak kafe tertulian parte hartzea animatu nahi ditugu. Euskararen gaiarekin guk ere asko egin dezakegula eta zer esana badugula kontuan hartzea garrantzitsua dela uste dugu. Ezin dugu dena eskolaren gain utzi. Hizkuntzaren errealitatea zeharo aldatu da Euskal Herrian azken hamarkadetan. Seme-alaba elebidunak edo elebakar izatetik seme-alaba eleanitzak izatera pasatu dira edo pasatuko dira. Egoera desberdin hau ulertu eta, euskara oinarrian jarrita, sortzen dituen aukerak aprobetxatzea komeritu zaigu. Deba herri euskalduna da baina horrek ez gintuzke erlaxatzea eramane beharko. Gure ustez badugu zer hobetu, badugu zer ikasi eta gure seme-alaben onurarako pausoak eman ditzakegula sinesten dugu. Merezki dugulako, merezi dutelako.

ASKOTARIKO JARDUERAK EGIN DITUGU AZKEN ASTEOTAN

Mendatako 2. zikloko ikasleek pasa den hilabetean zenbait hitzaldi, txango eta tailer izan zituzten. 3. mailako ikasleek urtarrilaren hasieran heziketa afektibo sexualari buruzko saioak izan zituzten, baita ahozkotasanari buruzko tailerra ere, komunikazio mota ezberdinak lantzeko. 4. mailako ikasleek, berriz, drogei buruzko tailerra izan zuten. Horrez gain, AESLEME-k antolatutako hitzaldi bat izan zuten eta, azkenik, txango bat egin zuten Zumalakarregi museora. Ondorengo lerroetan laburbildu ditugu ekimen horien nondik norakoak.

AESLEME-ren hitzaldia

Hilabete hasieran, 4. mailako ikasleek elbarri baten esperientzia entzuteko aukera izan zuten. Mendata institutuko Gorputz Hezkuntzako irakasleak esan bezala, jende gazte askok ez du babesteko neurririk hartzen hainbat ekintza burutzeko orduan: bizikletan ibiltzean, patinetean... Beraz, hitzaldi hau egitea erabaki zuten, gazteek izaten dituzten istripuez eta haien ondorio larriez ohartarazteko. Azken finean, istripuak saihestea da hitzaldiaren helburu nagusia, baita ikasleen arreta eta interesa lortzea ere.

Sexu heziketa afektibo sexualari eta droga-menpekotasunari buruzko tailerrak

Ikastetxeko orientatzaileak dioenez, legearen arabera derrigorrezkoa da gai hauek tailerretan lantzea, ikasleen prestakuntza eta garapena ziurtatzeko. Ez hori bakarrik, dena den. Azken finean, gai hauei buruz hitz egiten ez baldin bada, merkatuak eskainitakoaren esku geratzen baikara. Alegia, ez badugu eskoletan modu osasuntsu batean lantzen, batere hezigarriak ez diren bestelako mezu edo eredu batzuk jaso genitzake komunikabide edo aisialdiko beste bide batzuetatik. Beraz, bi helbururekin



egin ziren urtarrilaren erdialdean tailer hauek: alde bate-tik, dinamika ezberdinen eta elkarrizketen bidez, ikasle-en interesak edo kezkek azaldu eta argitzea; eta, beste aldetik, gai hauei buruzko arriskuei buruz kontzientzia-tzea, etorkizunean ongi joka dezaten.

Ahozkotasanari buruzko tailerra

Aurten, lehenengo aldiz, ahozkotasanaren inguruko tailerra egin zuten 3. mailako ikasleek urtarrileko azken bi asteetan zehar, Urtxintxa aisialdi taldeak antolatuta. Tailerra gidatu zuen dinamizatzaileetako batek azaldu duenez, ekimenaren helburua komunikazio motak ezagutzea da, hau da, hitzeko komunikazioa eta komunikazio ez berbala. Hori jolasen bidez landu zuten gehienbat eta azken saioan ikasleek beraiek prestatutako ahozko aurkezpenak egin zituzten.

Zumalakarregi museora irteera

Aurreko urteetan bezala, Geografia eta Historiako irakasle batek txango bat antolatu zuen Ormaiztegiako Zumalakarregi museora. Izan ere, 4. mailako ikasleek karlistaldiak lantzen dituzte irakasgai horretan. Tomas Zumalakarregi baserri batean bizi izan zen eta bertan hainbat arropa, idatzi, arma, eta abar daude. Museoa ikusi, bertan ekintza batzuk egin eta, ondoren, baserria ikustera joan ziren ikasleak Ezkiora.

INKESTA

Ahokotasunari buruzko tailerrean parte hartu duten 3. mailako zenbait ikasleri ekimen horren inguruko hainbat galdera egin dizkiegu, euren iritzia eta balorazioa jakiteko helburuarekin:

- 1.- Zer izan da tailerretik gehien gustatu zaizuna?
- 2.- Eta gutxien?
- 3.- Zer ikasi duzu?
- 4.- Gustura sentitu zara? Zergatik?
- 5.- Horrelako tailerrek euskararen erabilera sustatzen dutela pentsatzen duzu? Zergatik?



Nora del Olmo

- 1.- Jolasak.
- 2.- Azalpenak.
- 3.- Besteei entzuten, hobeto komunikatzen.
- 4.- Bai, lagun artean geundelako.
- 5.- Bai, gaztelaniaz hitz egiten duen batek euskaraz hitz egin behar duelako klasean.



Gorka Ayastuy

- 1.- Egindako jolasak. Telefono izorratua, adibidez.
- 2.- Teoria.
- 3.- Ezer ere ez.
- 4.- Bai, beti euskaraz hitz egin dugulako.
- 5.- Bai, argi dago euskararen erabilera asko hobetu dela.



Ane Gonzalez

- 1.- Komunikazioari buruz asko ikasi dugula, jokoan bidez.
- 2.- Azalpen teorikoak astunak egin zaizkit.
- 3.- Komunikazioak dituen eraginak.
- 4.- Bai, lagun artean egon garelako eta jokoak egin ditugulako.
- 5.- Bai, euskararen erabilera hobetu dugulako.

**** Urtarrileko denbora-pasen erantzunak:**
Poema presoak: "Euskara bihotzean baina erdara ezpainean"
#ieroglifikoak: a) Gorria b) Erraza



Prentsa tailerra 2019-2020

Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko Garcia, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzaileak:



babesleak:



OTSAILAK 21, OSTIRALA

-19:00. **Hitzaldia:** "Zergatik hil dute Qasem Soleimani?", Ispiluen gelan. Hizlaria: Aritz Saïdi nazioarteko analista. Gazte Asarbladak antolatuta.

OTSAILAK 23, IGANDEA

-12:30. **Bisita gidatua:** "Flysch beltza". Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

OTSAILAK 26, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa kluba**, Ostolaza udal liburutegian. "La hija extranjera" (Najat El Hachmi) liburuz arituko dira. Ainhoa Aldazabalek gidatuko du saioa.

OTSAILAK 27, OSTEGUNA

-19:00. **Hitzaldia:** "Zer ari da gertatzen Iruña-Veleian?", Itziarke Burugorri aretoan (Barruan Giro! programaren baitan). Hizlaria: Juan Martin Elexpuru.

OTSAILAK 28, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari poli-

tikoan eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

MARTXOAK 1, IGANDEA

-16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartean.

MARTXOAK 8, IGANDEA

-**Emakumeen Nazioarteko Eguna.**
-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz M.T. eta Luzarok antolatuta: ibilaldi neurtua.
-16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartean.

MARTXOAK 15, IGANDEA

-7:30. **V. Lasturko Mendi Marxa:** Geoparkeko karstari bira. Irteera: Lasturko plazatik (ikus 9. orrialdea).

MARTXOAK 21, LARUNBATA

-11:00. **Bisita gidatua:** "Lastur familiar". Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

MARTXOAK 22, IGANDEA

-16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartean.

Neguko Jazzez Blai Festibala

Deba Jazzez Blai festibalak antolatutako banden lehiak aurrera jarraitzen du eta kontzertu ezberdinak iragani dituzte otsailaren 28rako eta martxoaren 21erako, Gaztetxean.

***Otsailak 28, ostirala:**

-20:00: No Land Trio
-21:00: Lunch herrikoia
-22:00: Angel Ferreira Trio
-23:15: Irati Bilbao Quintet



***Martxoak 21, larunbata:**

-22:30etik aurrera: Mazzedonia eta C-U?

Kafe tertulia

Martxoaren 5ean (osteguna) "Batu sutondora" kafe tertulia egingo da, 18:30ean, Agirre jauregiko Ispiluen gelan. Apakin Guraso Taldeak antolatu du ekimena (informazio gehiagorako, ikus 15. orrialdea).



Martxoaren 8aren bueltan

-Hainbat ekimen izango dira aurtengo Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira Deban eta Itziarren. Aurrez abiatuko da egitaraua, otsailaren 20an, eta martxoaren 15era arte luzatuko da. Aurreikusitako ekimenen inguruko informazio gehiagorako, ikus aldizkari honetako 7. orrialdea.

****Udaleko Jai Batzordeak mozorrotzeko gonbitea egiten die une, gazte eta helduei.**

INAUTERIAK 2020

Otsailak 21, ostirala

-17:30. **Kalejira** Banda Gaztearekin.
-17:30. **Haurrentzako jokoak**, Zuhatza Kolore Anitzen eskutik.

Otsailak 22, larunbata

Egunean zehar, **mozorro lehiaketa** (taldeka eta banaka). Modalitate bakoitzeko bi sari egongo dira. **Photocall**-a jarriko da udaletzeko arkupeetan (13:30-14:30 / 17:00-20:00). Parte hartu nahi duenak bertatik pasa beharko du argazkia ateratzeko.

-13:00. Debako Musika Bandaren kalejira.
-17:30. Foruen plazan **enbolatuak eta poneyak** haurrentzat (Debadarrak-en eskutik).
-20:30. Que Toque El de Alau **txaranga**.
-20:30. **Mozorro lehiaketaren sari banaketa**, Foruen plazan.
-00:00. Que Toque El de Alau **txaranga**.
Otsailak 25, asteartea
-17:00. **Mozorro show-a eta txokolatada** Aldats pilotalekuan, Gaztelekuak antolatuta.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **otsailak 28, 29,**
martxoak 1, 9, 10, 11, 12.

Burgoa Zuazo: **otsailak 24, 25, 26, 27,**
martxoak 13, 14, 15.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: martxoak 7 eta 14

BURGOA ZUAZO: otsailak 22 eta 29 / martxoak 21

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

www.alain.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

MARJE CASTRO Iribarren



- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

Masajista

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

A D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

G



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxes: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ieraenea

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel: 943 53 95 20 - E-mail: ieraenea@qmail.com

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383

berriketan@zuhatza.com



k

kutxabank

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



KOLORE ANITZ INAUTERIAK
OTSAILAREN 21^{EAN}, OSTIRALA
ARRATSALDEKO 17:30^{EAN}
ADIN GUZTIENTZAKO
ANIMATU ETA PARTE HARTU!


DEBAKO UDALA

Inauterietan irteteko prest zaude?

Atera argazkiak,
bidali
eta gustura
kaleratuko ditugu
Berriketan-en!

berriketan@zuhatza.com
632 04 33 22

